

EUSKAL FILOLOGIAKO IKASKETAK 2000. URTEAREN ATARIAN

Pello Salaburu

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 1 (1992), p. 99-112
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Euskal Filologiako ikasketa arautuek (karrera bat eginez, esan nahi dut) ez dute tradizio luzeegia gure artean. Deustuko Unibertsitatea izan zen hasiera eman ziena orain dela hamabost bat urte eta ia ia berehala Euskal Herriko Unibertsitateak jarri zituen bere curriculum-ean Koldo Mitxelena zenaren eskutik Gasteizko campus-ean, garai hartan gizarteak sentitzen zuen behar eta eskaera bati erantzun egokia eman nahian.

Bi unibertsitateok, hala ere, ez dute eskaintza bera egiten, ikasgaiak desberdinak baitira batean eta bestean. Iralaslegoari dagokionez ere, ez dituzte baldintza berak bete behar, ez eskolak emateko orduan ezta ere sailak osatu behar direnean. Sistema bera ona den ala ez alde batera utzita, unibertsitate publikoaren kasuan argi dago irakasle osoa izateko kurrutu behar den bidea: doktoregoa egin, lehiaketa publikoa irakasle titularra izateko eta bigarren lehiaketa publikoa katedratikoa izateko. Lehiaketa batetik bestera hiru urte, gutxienez, igaro behar dira. Horrela bakarrik sar zaitezke funtzionarioen sisteman, esan nahi baita, horrela bakarrik segurtatzen duzula zure lanpostua. Gero, sail bat osatu nahi baldin baduzu, hamabi irakasle dedikazio osokoak elkartu behar dituzu, hori baita legeak finkatzen duen kopuru txikiena. Irakasle hauek zentro diferenteetakoak izan daitezke: horrela, EHU-ko Euskal Filologia Sailak bederatzikastetxetan eta hiru campi-etan ditu barreiatuak bere irakasleak, nahiz eta euskal filologiako ikasketak, lizentziaturari dagozkionak, Gasteizen bakarrik egin daitezkeen.

Unibertsitate pribatuek askoz ere askatasun handiagoa dute honetan guztian: itxuraz publikoak bezala egituratu behar diren arren, sailak osatzeko behar dituzten baldintzak edo irakasle bat titular nahiz katedratiko izendatzeko erabiltzen diren neurriak, epeak, moduak, propioak dira, sarri askotan unibertsitateko zuzendaritzaren esku geratzen direnak. Horrela, paradoxa xebreak gerta daitezke: bati gertatu zitzaion EHU-ko irakasle titular plaza batera aurkeztu zela eta ez zuela eskuratu plaza hori. Berriz ere Deustuko Unibertsitatean, katedratiko egin zuten. Gaineratu behar da, halaber, unibertsitate pribatuek ez dutela jasaten hain nardagarri eta kaltegarri bihurtzen den burokrazia ikaragarria. Horren ondoan, unibertsitate publikoetan kontrol demokratikoa anitzez ere estuagoa da, paperean bederen.

Bi egoera hauek aipatu ondoren, itzul nadin orain harira. Euskal filologiari buruzko tradizio eza aipatu dut lehentxoago: horrek ez du esan nahi, jakina denez, hizkuntzalari profesionalak (hangoak eta hemengoak) gure hizkuntzaz arduratu ez direla. Edozein ikerlariri Lafon, Altube, Azkue, Schuchardt, Bonaparte, Gavel, Larrasquet, Tovar, Lafitte, eta horiekin batera aipa daitezkeen beste izen batzuk ez zaizkio batere arrotz egiten. Denen gainetik Mitxelenaren lan handia aziparratu behar da, eta berarekin batera hemengo ez diren zenbait hizkuntzalari ere: Rudolf de Rijk holandarra, esate baterako. Euskararen ikerlanean Euskaltzaindiak burutu dituen lanak, batez ere L. Villasante euskaltzainburu izan denetik, oinarrizkoak dira: hiztegitzinta, gramatika, lekukoak, atlasgintza, toponimia, e.a. Villasantek berak ere bere aldetik xeheki aztertu du Axularren lana eta gramatikari buruzko hainbat liburu eskaini digu, hau ia ia basa-

mortua zenean, ikasleen gidari izan direnak. Ez nuke ahaztu nahi hemen P. Altunaren lan sistematikoa eta eskergaitza, gazteagoen izenak beste bateko utzi nahiago ditudalarik. Unibertsitatea edo Euskaltzaindia ez diren beste erakunde batzuen lana, eta lan ona, ez dut aipatuko hemen ez luzatzearren.

Orain artekoa

Orain arte, eta oraingoz ere, batek euskal filologiako lizentzia eskuratu nahi zuenean, zer zen unibertsitatean aurkitzen zuena? Bestela esan, zein dira unibertsitateak eskaintzen dizkion ikasketak? Hasiera hasieran esan dudan legez, bi unibertsitateek eskaintza desberdina duten arren (bien plangintza urte desberdinetan onartu baitzen Madrilan), azken batean oso-oso diferentea ez denez, Euskal Herriko Unibertsitateaz bakarrik arituko naiz, hauxe baita hobekien ezagutzen dudana.

Ikasketen lizentziatura bost urtetan egiten da, aukera delarik gero doktoregoa egiteko beste bost urteko epean: lehenbiziko bi urteetan eskola arautuak dira eta ondoko hirurak tesia idazteko dira. Doktorego programak urtez urte alda daitezke eta hori sailak berak erabakitzen du nolakoa izango den aldi bakoitzean, nahiz eta, azken batean, unibertsitate osorako hedatua dagoen Doktorego batzordeak onartu behar duen, hora ere ezin baita nolana egin eta gutxieneko baldintza batzuk eskatzen baitira programak onartzeko orduan.

Lehenbiziko bost urte horietan burutu behar diren ikasgaiak 1. kuadroan ematen ditugu, kuadro hau honela interpretatu behar dugularik: lehenbiziko zutabean jarri dugu ikaslearen ikasturtea; bigarrenean ikasgaiaren izena. Hauetako batzuk azpimarraturik daude, horrek esan nahi baitu ikasgai horiek direla euskal filologia egiten dutenentzat bereziak, espezialitateak. Beste filologietako ikasleek ez dituzte egin behar. Hirugarren zutabeko informazioa erredundantea da, neurri batean: filologia guztietako ikasleek egin behar duten ala ez zehazten da hor. Laugarrenean, zer egin behar duten euskal filologiakoek, gaia espezialitateakoa izan nahiz ez. Eta bosgarren zutabean, delako ikasgai hori beharrezkoa den ala ez. Laugarren ikasturteik aurrera (bigarren zikloan) gauzak pixka bat nahasixeago dira: aukerako ikasgaien artean badira batzuk euskal filologiari bakarrik dagozkionak eta beste batzuk, berriz, edozein filologiako ikasleek egin ditzaketenak. Nolanahi ere, ikasgai hauek ez dira aukerako hutsak, lehenbiziko hiru kurtsoetan germaniarekin gertatzen den bezala (batek aukera dezake ala ez, baina karrera ikasgai hori egin gabe buka dezake), nahitaez hauetako bi, ikasturte bakoitzean, aukeratu behar dituelako ikasleak.

I	II	III	IV	V
Ikast.	Ikasg.	Fil	Euskal Fil	beh
1	<i>Euskara /</i>	ez	bai	bai
1	<i>Historia</i>	bai	bai	bai
1	<i>Hizkuntza espainiarra</i>	bai	bai	bai
1	<i>Espainiar literatura I</i>	bai	bai	bai
1	<i>Latina I</i>	bai	bai	bai
1	<i>Germaniera</i>	bai	bai	ez
--				
2	<i>Euskara II</i>	ez	bai	bai
2	<i>Hizkuntzalaritza</i>	bai	bai	bai
2	<i>Logika formala</i>	bai	bai	bai
2	<i>Espainiar literatura II</i>	bai	bai	bai

2	<i>Latina II</i>	bai	bai	bai
2	<i>Germaniera</i>	bai	bai	ez
—				
3	<i>Euskararen historia</i>	ez	bai	bai
3	<i>Euskara III</i>	ez	bai	bai
3	<i>Lit. grekoa eta latinoa</i>	bai	bai	bai
3	<i>Latin arrunta</i>	bai	bai	bai
3	<i>Germaniera</i>	bai	bai	ez
—				
4	<i>E. hizkuntzalaritza I</i>	ez	bai	bai
4	<i>Euskal testuak I</i>	ez	bai	bai
4	<i>Espainieraren gramatika historikoa</i>	bai	bai	bai
4	<i>Espainiar literat. III</i>	bai	bai	bai
4	<i>Semantika</i>	bai	bai	ez
4	<i>Euskal Herriaren H.^a</i>	bai	bai	ez
4	<i>Semantika</i>	bai	bai	ez
4	<i>Euskal dialektologia</i>	ez	bai	bai
4	<i>Hizkuntzaren pedagogia</i>	ez	bai	ez
4	<i>Psikolinguistika</i>	ez	bai	ez
4	<i>Euskal literatura</i>	ez	bai	ez
4	<i>Euskara teknikoa</i>	bai	bai	ez
4	<i>Germaniera</i>	bai	bai	ez
—				
5	<i>E. hizkuntzalaritza II</i>	ez	bai	bai
5	<i>Euskal testuak II</i>	ez	bai	bai
5	<i>Hizkuntz. erromanikoa</i>	bai	bai	bai
5	<i>Espainiar literatura IV</i>	bai	bai	bai
5	<i>Hizkuntzalaritza formala</i>	ez	bai	ez
5	<i>Aho-tradizioko literatura</i>	ez	bai	ez
5	<i>Hizkuntzaren pedagogia</i>	ez	bai	ez
5	<i>Soziolinguistika</i>	bai	bai	ez
5	<i>Hizk. historikoa eta konp.</i>	bai	bai	ez
5	<i>Germaniera</i>	bai	bai	ez
5	<i>Euskara teknikoa</i>	bai	bai	ez

(1.- Kuadroa: Euskal Filologiako ikasketak gaur egun EHU-n)

Kuadro honek, jakina, iruzkin bat baino gehiago mereziko lukeen arren, ohartxo batzuk baizik ez ditut egingo:

1) Gauzak diren bezala dira eta arrazoi historiko batzuen kume, baina harritzekoa da zein ikasgai guti dagoen espezialitateari zuzenean dagozkionak: lau asignatura bakarrik lehenbiziko zikloan eta zortzi (hauen artean lau aukerakoak) bigarreanean.

2) *Espainiar literatura* lau ikasturtetan zehar ematen da. Txarrena ez da hori: hemen azpi-marragarriena da hori ez dela ez “espainolez idatzitako literatura” (gaitzerdi orduan, Hegoameriketako literatura sartuko bailitzateke), ezta “Espainian idatzitako literatura” (beraz, euskara edo katalana sartuko litzateke horrela balitz, gure egiten baditugu kontu honetan guztian Gre-

gorio Salvador irakasleak eman dituen definizio bitxi eta interesatuak), baizik “Espainian espainieraz idatzitako literatura”, honek aukerak ikaragarri laburtzen dituelarik.

3) Ikasleak buka ditzake ikasketak *dialektologia* izeneko ikasgaiak landu gabe, aukerakoa baita, zerrendan ikus daitekeenez.

4) Latinaren garrantzia inork ukatzen ez badu ere, *latinak* eta *euskarak* (ikasgai bezala hariturik) pisu bera dute, paperean behintzat.

5) Ez dago, esaterako, *euskararen gramatika historikoa* izeneko ikasgaiak baina bai bada, ordea, espainieraren horren parekoa.

6) *Euskararen historiak*, kuadroan ikus daitekeenez, *literatura grekoa eta latinoaren* pisu bera du. Biek ikasgai bana.

Ez da esan beharrik planteiamendu guzti honek kezka berezia sortu izan duela ikasle eta irakasleen artean, hutsak aski nabarmen gelditzen direlako. Gainera dezadan, aurkezpen hau amaitzeko, azken urteetan, eta Mitxelenaren aginduz, gizarteak eta hizkuntzen inguruko zientziek plazaratzen dituzten eskaera berriei erantzuna emateko asmoz, ikasgai berriak indartu direla, sintaxiarekin edo hizkuntzaren jabeakuntzarekin eta pedagogiarekin (nork ahanzt dezake oraingoz euskal filologo anitzen etorkizuna euskararen irakaskuntzaren bidetik doala?) zerkusia dutenak, hain zuzen ere. Baina geroago itzuliko gara gai hauetara.

Plangintza berriak

Parlamentuak LRU famatua (Ley de Reforma Universitaria delakoa, alegia) onartu zuenetik burrunbean etorri dira hura garatzen duten hainbat dekretu eta arau. Horien artean sartzen da bat ikasketen edukiarekin lotzen dena. Beste hitzetan paratuz: Ministerioaren ustetan, egun indarrean dauden ikasketak gaurkotu egin behar ditugu Europan zer gertatzen den ikusiz. Hori dela eta, gaurkotze hau hainbat gauzarekin dago loturik:

1) Ikasketa plan guztiak aldatu behar dira, berrituz. Lizentziatura berriak eskaini behar dira, hauen artean sartzen delarik, esaterako, *Euskal Filologia* ere, orain arte ez baitago izen hau daraman lizentziaturarik. Orain artekoak “Licenciado en Filosofía y Letras (Sección Filología Vasca)” dira. Gainera, Unibertsitateek aukera izanen dute lizentziatura ofizialak eskaintzeko, edo titulu propioak, ofizialtasunik gabekoak. Azken hauetaz ez dugu jardungo hemen.

2) Lizentziatura homologatuetan, ikasgai bakoitzaren izena zehazteaz gain, horren edukia ere zehaztuko da eta ikasgai horretaz nor arduratuko den ere. Zer esan nahi du honek? Orain arte irakasleak lizentziatuak edo doktoreak ziren eta besterik gabe eman zitzaizkien eskolak. Orain dela urte batzuk, ordea, irakasle bakoitzak zehaztu behar izan zuen zein jakintza arlori loturik ikusten zuen bere burua, ministerioak ateratako zerrendan zeuden jakintza arloen artean bat bakarrik aukeratuz (esan beharra da “Euskal Filologia” izeneko bat jarri zuela ministerioak, oso jenerala, “euskal literatura” edo horrelakoak aipatu barik). Plazak lehiaketara ateratzen direnean ere, jakintza arloa zein den zehaztu behar dute. Plangintza berriek zehaztuko dute, esaterako, ikasgai baten izena *Historia y cultura de los países de lengua inglesa* (halako bat proposatzen da ingeles filologiako ikasketetan, adibidez) baldin bada, hori emateko jakintza arloa “ingeles filologia” edo beste jakintza arlo bat den.

3) Ministerioak zehazten ditu zein diren enbor asignaturak eta zein ez. Hau da, edozein unibertsitatek *Euskal Filologia* izeneko lizentziatura eskaini nahi baldin badu, nahitanahiez eskaini behar dizkio ikasleari ministerioak finkatu dituen enbor ikasgaiak, eta hark finkatu dituen baldintzetan gainera. Bestela egingo balu, eta bestela ere egin dezake, titulua ez litzateke homologatua izango.

4) Zehaztu gabe geratzen diren ikasgaiak unibertsitatearen esku geratzen dira eta hauen artean batzuk beharrezkoak eta beste batzuk aukerakoak izango dira. Beraz, aukeratasun hau bi modutara ulertu behar da: aukera unibertsitateak berak egiten du ikasgai batzuekin eta beste batzuekin, berriz, ikasleak.

5) Aurrerantzean, paperean behintzat, ikaslearen esku geratuko da curriculum-aren krograma. Egia da ikasgai batzuk giltzak izanen direla eta ezenezkoa izanen dela batetik bestera pasatzea aurrekoa egin gabe. Baina honekin batera egia da ere ikasgai kontzeptuaren gainetik "kreditu" kontzeptua ari dela nagusitzen: ikasleak, ikasketak bukatzeko, honenbeste kreditu eskuratu beharko ditu lehenbiziko zikloan eta beste horrenbeste bigarrean. Interpretaziorik zabalenean, kreditu hauek, aukerarik baldin badu horretarako, unibertsitate, sail edo zentro desberdinetan eskura ditzake. Interpretazio zabal honetan, ikasleak, moldatzeko modurik baldin badu behinik behin, ikasketa horiek hiru, lau edo bost urtetan egin ditzake. Hori interpretaziorik zabalenean. Interpretazio estuenera jotzen badugu, unibertsitateak berak finkatuko baitu de facto, hain segur, zenbat urtetan egin daitezkeen ikasketak (lau edo bost urtetan) eta kreditu gehienak zentro berean eskuratu beharko dira, nahiz agian batzuk kanpoan ere lar daitezkeen, gauza bat baita paperekoa eta bestea berriz hainbat faktorek baldintzatzen duten plangintza: dirua, lekua, irakasleak, e.a.

6) Kreditu bakoitza eskuratzen da hamar eskola orduren truke. Horrenbestez, ikasgai bat gainditzeko 8 kreditu behar direla baldin badio legeak, 80 bat ordu kalkulatu behar dira, gaur egungo ikasgai baten pareko izango lirartekeenak alegia.

7) Sistema berri honekin eratuko diren plangintzak bi urteko epean zehaztu behar ditu unibertsitate bakoitzak. Bestela, ministerioak ezarriko ditu zuzenean ikasketak.

Lehenbiziko asmoa

Ikasketak sistema berrira moldatu behar zirela eta, ministerioak berak izendatu zituen lanean hasteko zenbait batzorde. Hauetako batek (Mitxelena batzordekide zuela) aztertu zituen "Euskal Filologiako Lizentziatura"-ri zegozkiekeen xehetasunak eta, behin plangintza zehaztu ondoren, unibertsitate guztietara barreiatu zen 1987ko apirilean proposamen tekniko hau. Pentsatzekoa da zer nolako eztabaidak sortu ziren batzordean, ministerioan eta botere leku guztietan, azken batean zientzia zuzen egitearen gainetik gizakiak hurbiltxoago dituen interesak gaineratzen baitira halakoetan: nere orduak segurtatu, nere gaia segurtatu, nere jakintza arloa segurtatu, e.a. Batek duen inpresioa da, sarritan, unibertsitate publikoa baino pribatuagorik ez dela deus. Nolanahi ere, ministerioaren lehenbiziko proposamena dago, laburturik, 2. kuadroan.

Lehen zikloa	
<i>Euskal hizkuntzaren historia</i>	8
<i>Hizkuntza klasikoa (latina) ala modernoa (frantsesa)</i>	16
<i>Euskara</i>	24
<i>Hizkuntzalaritza</i>	8
<i>Euskal literatura</i>	8
<i>Poetika eta erretorika</i>	8

Bigarren zikloa	
<i>Euskal dialektologia</i>	4
<i>Euskal gramatika historikoa</i>	4
<i>Euskal literatura</i>	8
<i>Euskal sintaxis</i>	8
<i>Euskal testuak I eta II</i>	16

(2.- kuadroa: Hezkuntza Ministerioaren lehenbiziko proposamena)

Bigarren lauki horretan ikusten denez, abrapuntua ez zen batere txarra: irakurleak atera ditzala kontuak hor zehazten diren kredituei begiraturaz (8 kreditu gaur egungo sisteman urte beteko ikasgaia da, esan bezala). Hauek dira enbor ikasgaiak, horretaz gain unibertsitateak berak zehaztuko baititu nahi dituen gainerakoak, ikasketak osatu arte.

Ohart gaitezen, esaterako, hor badirela lehenbiziko zikloan 48 kreditu gutxienez euskal filologiarekin zuzenean lot daitezkeenak (horiek, gaurko sistemarekin erkatuz, 6 ikasgai dira, indarrean dagoen plangintzan baino bi ikasgai gehiago hortaz). Bigarren zikloan 40 kreditu ditugu (= 5 ikasgai gaurko sisteman. Horrenbestez, asignatura bat gehiago plangintza berrian, aukerakoak ez baitira hemen sartzen). Argi dago espezializazio aldetik ikaslea irabazian ateratzen dela sistema berriarekin, azken batean enbor ikasgai hauek %34,5 baizik ez baitute zehazten. Proporzio txiki horretan horrenbeste "euskal" ikasgai sartu baldin bada, pentsatze-koa da zehazteke geratzen den %65,5 horretan ere izango dela aukera zebala bestelako euskal gaiak sartzeko.

Informazio hau ongi ulertzeko esan dezadan %34,5 hori dela, hain zuzen ere, unibertsitate guztiek bete behar dutena, lizentziatura hau eskura eman nahi duten unibertsitate guztiek alegia, berdin Salamancan, Madrilen edo Bilbon. Fata diren asignaturak unibertsitate bakoitzak zehaztu beharko ditu ondoren, irakasleak, sailak, gobernu batzarrak, e.a. ados jarri behar dituelarik horretarako, hor ere norberaren interesak ez baitira faltako. Azkenean, dena ministerioak ontzat eman behar du.

Proposamen hau barreiatu zen unibertsitate eta erakundeetara, jendeak oharrak egin ziezakion. Ministerioak jaso zituen ohar guztiak argitaratu dituzenez, badakigu zein den orain ez batzordearen iritzia, baizik honetaz arduratzeko gogoia eta astia izan duen ororen iritzia (ikus bedi *Reforma de las Enseñanzas Universitarias. Título: Licenciado en Filología Vasca. Propuestas alternativas, observaciones y sugerencias formuladas al informe técnico durante el período de información y debate públicos*. Consejo General de Universidades (1988))

Ohar gehiengoek zerbait gaineratzea nahi zuten: dialektologia indartzea, hizkuntzaren pedagogiari buruzko gaiak sartzea, itzulpena, beste hizkuntza modernoa (ingelesa), e.a. izan ziren espainierarekin zerikusia duten ikasgaiak enbortzat jotzea proposatu zutenak ere. Baina, oro har, proposamen tekniko hau ez zen funtsean aldatzen eta interesatuek onartzen zuten. Hurrengo pausua BOE-n argitaratzea zen. Baina... BOE-n ez zen argitaratu inoiz ere.

Azken proposamena

Ixilune luze baten ondoren, telebistako berrietatik jakin genuen ministerioa biltzeko zela uda aurretik egindako batzar batean eta hartantxe erabakiko zela behin betiko nolako baldintzak bete behar zituzten zenbait titulaziotik. Orduan eskuratu genuen zein zen azken proposamena. Harrigarria baldin bada ere, azken proposamen honek, Euskal Filologiari dagokionez (baina hau titulazio gehienekin gertatu zen), ez zuen zerikusi handiegirik aurreko proposame-

narekin. Inork ezagutzen ez dituen arrazoiengatik, azken eztabaidarako eraman zen proposamenak gauzak dexente aldatzen zituen, 3. kuadroan ikusten ahal denez:

Lehen zikloa	
<i>Latina</i>	8
<i>Euskara</i>	16
<i>Hizkuntzalaritza</i>	8
<i>Bigarren hizkuntza</i>	12
<i>Literaturaren teoria</i>	8
Bigarren zikloa	
<i>Euskal dialektologia</i>	8
<i>Euskal gramatika</i>	8
<i>Euskararen historia</i>	8
<i>Euskal literatura</i>	12
<i>Bigarren hizkuntzaren literatura</i>	12

(3.- kuadroa: Hezkuntza Ministerioaren bigarren proposamena)

Jakina; bigarren proposamen hau ez zitzaion jendeari igorri, oharrak egin zitzaizkien. Unibertsitateko Kontseilukideei bakarrik (unibertsitateetako errektoreek, Komunitateetako Hezkuntza Kontseilariak eta ministerioko zenbait jendek osatzen dute Unibertsitateetako Kontseilu Nagusia) bidali zitzaizkien hauek eztabaidan hasi aurretik. Beraz, hor ez genuen eskua sartzerik izan zuzenean interesaturik egon gitezkeenak.

2. eta 3. kuadroak elkarren artean erkatzen baldin baditugu, gauzak nabarmenki aldatzen direla ohartuko gara. Lehenbiziko zikloan ukitu gabe uzten den ikasgai bakarra *Hizkuntzalaritza* izeneko asignatura da. *Euskara-ri* 8 kreditu kentzen zaizkio (urte bat, berez); *Euskal hizkuntzaren historia eta Euskal literatura* bigarren ziklora pasatu dira; ez da aukerarik ematen hizkuntza klasiko eta modernoaren artean eta *latin-a* beharrezkotzat hartzen da, 8 krediturekin bakarrik; *Poetika eta erretorika-ren* ordez *Literaturaren teoria* jartzen da. Guztira, 20 kreditu gutxiago zehazten da oraingoan (lehenago 72 kreditu zehazten baziren, orain 52 bakarrik ditugu) eta euskararekin zuzen-zuzenean loturik 16 kreditu bakarrik.

Bigarren zikloan, berriz, *Euskararen historia* eta *Euskal literatura* agertzen dira orain (azkeneko honek 4 kreditu gehiago dituelarik); *euskal dialektologia-ri* ere 4 kreditu gehiago ematen zaizkio; *Euskal sintaxis-ren* ordez *Euskal gramatika* agertu zaigu; harrigarria den arren *Euskal testuak* izenekoak desagertu zaizkigu eta inork ere aipatua ez zuen *Bigarren hizkuntzaren literatura* berria sartu da hor. Denetara 48 kreditu, horietatik 36 euskararekin zuzenean loturik daudenak. Lehenbiziko proposamenean, 40 kreditu ziren euskararekin lotuak.

Pentsa daiteke, eta ez da arrazoirik falta hor, sistema honek malgutasun handia ematen diola unibertsitateari. Azken batean, hain guti direlarik zehazten diren ikasgaiak, kreditu asko dagoenez zehazteke eta hori unibertsitatearen esku garatzen baita, gerta liteke falta diren kreditu guztiak (eta askotxo dira) euskal asigaturez hornitzea. Baina hemen ere ohar pare bat egin behar da: hasteko, praktikan ezinezko bihurtuko da asignatura horietan nahi dugun adina euskal gai sartzea, bestelako interesak ere baitaude tartean eta hor sekulako gatazkak sortuko baitira sail eta irakasleen artean, indarririk handiena erakusten duenak irabaziko duelarik azkenean.

Hala ere, pentsatzekoa da EHU-n euskal gaien presentzia garantizaturik geratuko dela Baina, eta hau da garrantzikoena, beste zerbait ere gertatzen da hemen. Oinarrizko ikasgai hauek bete behar ditu edozein unibertsitatek *Euskal filologia* izeneko ikasketak ekaini nahi baldin baditu. Horiek dira, beraz, bazter ezinezko baldintzak. Hori hala izanik, paperaren gainean bederen, ez dago inolako eragozpenik geratzen diren kreditu guztiak euskararekin zerikusirik ez duten galekin hornitzeko (historia, geografia, beste hizkuntzak, e.a.). Orduan, zer nolako filologoa izan daiteke 3. laukian zehaztu ditugun euskal ikasgai horiek bakarrik egiten baditu? Hora arazo larria izan daiteke, zenbait unibertsitatek luza dezakeen titulazioa, hemengo unibertsitateek luzatzen dutenaren pareko izanik ere, guztiz degradatua geldi baitaiteke

Gure buruari egin diezaiokegun galdera da zergatik suertatzen diren hain aldaketa handiak lehenbiziko proposamenetik oraingo honetara. Euskal Filologiaren kasuan aldaketa hauek beste filologiakoetakoak baino handiagoak diren arren, badirudi homogeneitate bat ezarri nahi izan duela ministerioak, filologia guztiak pare-parean jarri, neurri batean bederen. Hori gauza ona izan daitekeen arren, ez da dudarik beste batzuetan aski txarra gerta daitekeela, denak ohartzen baikara euskal filologiaren kasua eta beste filologiaren ezin dela parean jarri (ikasketa berriagoak; ahaidetasunik gabeko hizkuntza; hemengo unibertsitateetan bakarrik ematen diren ikasketak; euskal filologoek praktikan izan ditzaketen lanak ere ezin dira konparatu, esaterako, ingeles filologia egin dutenek aurkitzen dituzten lanekin, e.a.)

Zernahi gisaz, lehen adierazi dugun moduan, hauxe da ministerioak eztabaidarako eraman zuen proposamena, baina gauzak uste dugun baino zailxoago baitira, ikus dezagun orain zer den bilera hartan hartu zen erabakia, horixe izan balta BOE-k argitara eman duena.

Azken erabakia

Azkenean, 1990eko azaroaren 20an argitaratu ziren BOE-n ministerioak onaturiko titulazioak. Hauen artean dago euskal filologiako ikasketei dagokiena. Berriz ere ezarri dira aldaketak, bere txikitasunean aski adierazgarriak gertatzen direnak. Badirudi hemen presio handiak gertatu direlazenbait jenderen aldetik gauzak horrela gelditzeko. Ikus ditzagun lehenik ikasgai hauek lauki batean, 4. kuadroan hain zuzen ere.

Lehen zikloa	
<i>Latina</i>	8
<i>Euskara</i>	16
<i>Hizkuntzalaritza</i>	8
<i>Bigarren hizkuntza</i>	12
<i>Literaturaren teoria</i>	8
<i>Hizkuntza</i>	8
Bigarren zikloa	
<i>Euskal dialektologia</i>	8
<i>Euskal gramatika</i>	8
<i>Euskararen historia</i>	8
<i>Euskal literatura</i>	12
<i>Bigarren hizkuntzaren literatura</i>	12

Gomendioak:

- 1.- Hizkuntzaren ezagutza neurtuko duen azterketa egin ikasketak bukatzerakoan.
- 2.- Hizkuntza propioari dagozkion 8 ikasgaiez gain, Espainiako beste hizkuntza ofizial bati dagozkion sei kreditu gehiago egin.

(4.- kuadroa: Euskal Filologiako ikasketak BOE-n. Azken proposamena)

Gomendioez gain, ongi ikus daitekeenez, *Hizkuntza* izeneko ikasgai berria da hor ageri den bakarra lehenbiziko zikloan. Baina oso adierazgarria da. Dena dela, honetara itzuli aurretik, aipa dezadan beste aldaketa txiki batzuk ere argitaratu direla BOE-n, hemen azpimarratzea merezi dutenak. Hasieran esan bezala, ikasketak zehazten direnean, asignaturen izena, kredituak, zein jakintza arlori dagozkion eta barneko edukiar buruzko oharrak egiten dira, gure kuadroetan lehenbiziko bi puntuak bakarrik zehaztu ditugun arren. Oso argigarria izan daiteke ikustea zein diren ministerioak sartu dituen oharrak: *Euskara* ikasgaiari dagokionez, honen edukian aipatzen zen euskararen deskripzioa eta garapena hartu behar zirela kontuan. BOE-n argitaratu den plangintzan “garapena” (historia) desagertu da. *Euskal gramatika-ren* kasuan, berriz, “euskararen printzipio orokor eta oinarritzkoak” aipatzen ziren, besteak beste. Hori ere desagertu da BOE-n.

Zer esan hor agertu zaigun *Hizkuntza* ikasgai berriari buruz? Asignatura honen edukia zehazteko orduan, honela dio BOE-k: “Formación básica en los aspectos descriptivos y normativos de la lengua española o de la otra lengua oficial propia de la Comunidad Autónoma donde radique la Universidad, a elección del alumno. Cuando esa lengua estuviera incluida como materia troncal en la Licenciatura en Filología en que el alumno esté matriculado no estará obligado a cursarla de nuevo”. Ez pentsa: esaldi hori bi aldiz irakurri behar da ongi ulertzekotan. Ikus dezagun zein izan daitekeen hemengo ikasle baten egoera: berak aukera dezaake euskara nahiz gaztelania. Euskara aukeratuz gero ez du asignatura berri hau egin beharrik, euskara bera bestela ere ikasi behar baitu nahita nahiez, lizentziaturako lehen zikloko beste ikasgai batean. Orduan zer?

Hain zuzen ere, horixe da espainiar filologiaren interesak defenditzen dituztenek gainerako filologia guztiei sartu dieten ziria (ikasgai hau beste filologia guztietan ageri baita). Zergatik? Jo dezagun euskal filologiako ikasketak Madrilgo Complutense izeneko unibertsitateak ere ezarri nahi dituela. Zein dira, *Hizkuntza* izeneko ikasgaia dela eta, hango ikasle bati gertzen zaizkion aukerak? Gaztelania egitea besterik ez du, horixe baita han dagoen hizkuntza ofizial bakarra. Beraz, itxuraz aukerako den zerbait, beharrezko bihurtuko da ‘de facto’ elebidunak ez diren komunitate guztietan.

Ikusten da argi eta garbi zientziatik kanpo geratzen diren arrazoiek bultzatu dutela ikasgai hau. Bidegabeko agindu hau zuritzeko jarri du ministerioak, nonbait, bigarren gomendia, hizkuntza ofizialei dagokiena alegia. Baina zer dela eta, filologia eslaviara egin behar duen batek ikasi behar ote du (ikastea gomendatzen zaio) euskara edo gaztelania edo katalana, oinarritzko asignaturen artean, eta ez, esaterako, polakoa? Zer dela eta, Sevillan euskal filologia egin nahi duen batek nahitaez ikasi behar (ikastera bortxatua dago) gaztelania?

BOE-n argitaratu den plangintza honetan euskara eta euskararen historia ateratzen dira galtzaile. Eta filologiari berari ematen zaio, ikasketen artean, bigarren maila. Baina gauzak horrela daude.

Aipatu nahi nuke hemen, bide batez, zer gertatzen den *latina* bezalako ikasgai batekin. Inork ez du zalantzan jartzen latina ezagutzeak asko laguntzen diola bati gure hizkuntzaren historia ezagutzeko orduan, hizkuntza honek eragin handi izan baitu euskarari. Baina inork ez du ukatuko latina eta espainieraren artean dauden loturak askoz ere estuagoak direla eta ez dutela parekatzerik latina eta euskararen artekoekin. Gauza harrigarria den arren, oinarriko ikasgaiak zehazteko orduan, latinari pisu berbera eman zaio espainiar eta euskal filologiako ikasketetan. Areago: latinak eragin handia izan du alemanean edo ingelesean. Euskararen kasuan baino handiagoa, segurki. Hala ere, filologia ingelesa edo alemana egin nahi duenak ez du latinik ikasi beharko. Nola uler daiteke hau?

Etorkizuna

Euskal filologoen etorkizuna, dudarik ez da, ministerioak ezarritako plangintza hauek baldintzatuko dute neurri batean. Zernahi gisaz, ezin da ahaztu ikasketa hauek, gizartearen indartzen ari diren jakintza arloak kontuan harturik, ikasleago gutxiengo batek aukeratu dituela. Urte batzuetako epe batean behinik behin. Kontuan hartu behar da, halaber, gizarteak euskal filologo bati gaur egun eskatzen diona eta orain dela hamabost urte eskatzen ziona ez datozela bat inondik ere. Hasiera batean kezkarik handiena gure hizkuntzaren historia berreskuratzea baldin bazen ere, helburu hori bigarren mailan utzi gabe, badirudi beste kezka batzuk sortu direla haren parean: batzuk intelektualak, baina beste batzuk gizarteak sorrerazi dituen eskaera berriei zuzenean lotu behar direnak.

Argo dago, esate baterako, euskararen historia, dialektologia, euskal testuak, euskal aztarna urrun eta hurbilak, e.a. aztertzea, filologo baten lehenbiziko zereginen artean sartzen dela. Halaber, euskararen garapenean latinak eta beste hizkuntzek izan duten eragina zertan den zehaztea. Baina filologia ezin da gaur egun horretara bakarrik mugatu.

Nola ahaztuko dugu gizarteak euskara aztertzen hainbat urte igaro dituenari eskatzen diona? Ez al da egia, adibidez, gure filologo gehienek, oraingoan, euskara ikasteko eskolak ematen aurkitzen dutela ogibidea? Eta hizkuntzen pedagogia unibertsitatean ikasten ez badu, non ikasiko du bada? Honen antzeko zerbait suertatzen da itzulpengintzarekin ere. Hau ez da, oraintsu arte, unibertsitatean sartu eta sartu izan denean ere, beste ikasketa mota bat bezala sartu izan da. Baina, horrelako ikasketa arauturik ez dugun bitartean, ez ote digu gizarteak eskatzen horretan lana aurkitu nahi duten ikasleak behar bezala prestatzea, aparteko ikasgaiak jarritz haiendako? Ez ote da gertatzen filologo zenbaitek behintzat ogibidea errazago aurkitzen duela administrazioaren halako dokumentuen itzulpena egiten hemezortzigarren mendeko ez dakit zein autoreren hizkera aztertzen baino?

Zer esanen dugu gure artean, ikasketetan zehar bederen, hain baztertua izan den toponimia? Euskal Herriko toponimia behar bezala jaso gabe dago eta bildu izan denean ere, agian ez ditu garantia osoak izan. Nork erakusten dio bati modu sistematiko batean nola aztertzen diren dokumentuak, non dauden dokumentuak, nola jaso behar diren aldaerak, zeri egin behar zaron kasu eta zeri ez? Zergatik egiten dira lan hauek unibertsitateki kanpo? Ez al da hori gaurko filologo baten aginkizuna?

Hiztegigintzan lan egitea (testuetako hitzak aztertuz, baina egungo euskara bigarren mailan utzi gabe, horixe baita dugun hizkuntza bakarra, eta ez testuetakoa) filologoaren lana ez bada, norena ote? non erakutsi behar da hori modu sistematiko batean? Hemen sartuko litzaiteke (baina ez hemen bakarrik) euskara teknikoa edo zientifikoa deitzen den hori, hizkuntzaren errejistro berezi bat landu behar duen hizkuntza, hain zuzen ere. Hizkuntzalaritza aplikatua ere deitu izan zaio honi.

Ezinbestekoa da, ikastola eta ikastetxeetako maila nolakoa den askotan ikusirik, birziklaia ikastaroak antolatzea hizkuntza mailan maisu-maistrendako. Hori ere, neurri handi batean, euskal filologoei dagokie eta hau beharko litzateke landu liralaslego Eskoletan.

Literatura ez dugu aipatu, besteak beste literaturaren teoriari buruzko titulazio berezia sortu baitu ministerioak. Agian hor duke lekua. Nolanahi ere, euskal filologo batek, eskuartearen di-tuen testuak lekuko, nekez bereziko du zer dagokion literaturari eta zer filologiari. Bereizketa hori argiago gertatzen da, zer esanik ez, hogeigarren mendeko testuetan, baina batek ezin du karrera bukatu *Obabakoak* aztertu gabe.

Hori hala bada, ez dirudi oso bidezko, azken urteotan horrenbeste garatzen diren fonetika, fonologia eta sintaxia bigarren mailan uztea. Batez ere, maila honetan egin daitezkeen azterketek kanpoan sortzen duten oihartzuna ahazten ez badugu. Hortik doaz bideak, kanpoko unibertsitate famatuetan zer egiten den ikustea baino ez dago.

Zerrenda hau beste zerbaitekin luza daiteke. Aipatu beharko genituzke, esaterako, hizkuntzaren prozesamenduarekin lotzen diren arazoak, hizkuntzaren jabekuntzaz esan daitekeena, e.a. Aztergai hauetako zenbait ez ziren somatu ere egiten orain dela urte batzuk.

Batek esan dezake hemen jarri ditugun zenbait gai hizkuntzalaritzatik gertuago daudela filologiatik baino. Hala izan daiteke. Unibertsitate askotan hizkuntzalaritza izenaren azpian filologia aztertzen da eta beste zenbaitetan alderantziz. Gure artean, hizkuntzalaritzak ez du berezko ikasketa berezirik, oraingoz behintzat. Badirudi hemen ere presioak handiak izan direla horrelako ikasketak sor ez daitezen. Beraz, mugak ez daude hor batere argi eta batek zehaztu nahi baldin badu, euskararen kasuan bereziki, noiz egin nahi duen filologia eta noiz hizkuntzalaritza, lan ederra izango du, euskarak ez baitu, beste hizkuntza anitzekin konparaturik, horrenbeste testu. Mitxelena berak ere, hizkuntzalaritzat zeukan bere burua (*Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 695) eta aldi berean filologoa ere zela zioen. Nork jarriko ditu bada muga garbiak?

Hizkuntzalaritza aplikatua aipatu dut goraxeago: maila berean jarri behar ote dira euskarari dagokion hizkuntzalaritza aplikatua eta ingelesa edo espainiarari dagozkienak? Inola ere ez: hizkuntza erregistro berri hau sortzeko orduan zeresan handiagoa izanen dute, nere aburuz, hizkuntzaz arduratzen direnek, medikuek edo legeaz arduratzen direnek baino. Euskara dagoen egoeran dagoelako, zoritkarrez, eta hizkuntza honen normalizazio bidean profesionalki hizkuntzaz arduratzen garenok halako erantzukizun berezia baitugu. Kontu honetan atea irekia utziz gero, hogeitertietan bakarrik gerta daitezke aldaketa gehiago gure hizkuntzan azkeneko berrehun urteetan baino. Makurrago: gure aldeko euskara bakarrik sortzeko arrisku bizia dugu, ekialdekoek ulertuko ez dutena, sarritan komunikazio bideekin gertatzen zaiguna. Euskara batuaren izenean Espainiako euskara batu egiten baitugu ezustean.

Desafio ederra dauka bada euskal filologiak datozen urteetan. Gure lanak gero eta alderdi handiagoak ditu eta lana ere gero eta diziplinartekoago izanen da.

Ministerioak halako ikasgaiak ezarri ditu: nere ustez, falta ditugun guztiak hornitzeko orduan egungo gizarteak euskarari, eta euskararen espezialista direnei bereziki, planteiatzen dizkien eskaerei erantzunak emateko modukoak dira aukeratu beharko ditugunak. Filologia "huts" haren garaia bukatu da, mundua gaur egun beste nonbaitetik baitoa. Bukatze horrek ez du esan nahi filologia "hutsa" egin behar ez denik, ez. Esan nahi du, gai gehiago sartzen dela filologiaren barnean eta hau ezin dela mugatu testuen azterketara bakarrik. UNESCO delako erakundea era aski argi mintzatu da honetan: jakintza arloan sailkapen berrian filologia xoko batean utzi dute, "historiaren zientzia laguntzaile" bezala emana. Honen gainetik daude "hiz-

kuntzalaritza diakronikoa”, “hizkuntza geografia”, “psikolinguistika”, e.a., filologia bere leku naturaletik (hizkuntzaren zientzietatik) atera egin baitute historiaren barnean sartzeko. Datu hauek guztiak kontuan ez izatea, itsuaren bidea hartzea da.